

HIZKUNTZA ETA ERREALITATEA

Batasuna alderdiak «Sozialista abertzaleak» izena jarri nahi die EAEko eta Nafarroako bere talde parlamentarioei. Izen aldaketa azaldu ez dituzten arrazoi «logikoek» eragin omen dute. Baina izenaren azterketa baino ez zait interesatzen niri hemen. Izenak ez du izana egiten, baina izenak, deskribatzaile denean, kontzeptua gordetzen du eta kontzeptua garrantzitsua da, batzuen ustez behintzat.

Estentsioari dagokionez, bi multzoen arteko ebakidura designatzen du izen horrek: sozialisten multzoa hartu, abertzaleen multzoa hartu eta bietan dauden elementuek osatzen duten multzoa, hain zuzen ere. Jakina, hor atzean daukaguna ETA da (konjunkzioa; ez erakundea) eta, beraz: «sozialista» ETA «abertzale» = «abertzale» ETA «sozialista».

Intentsioari dagokionez, ordea, «Sozialista abertzalea» eta «Abertzale sozialista» ez dira gauza bera. Sustantiboa izatetik adjektiboa izatera dagoen aldea dago jokoan. Sustantiboak esistentzia duena, irauten duena adierazten du; adjektiboak hari ondoan jartzen zaiona, eransten zaiona. ETAk (erakundeak; ez konjunkzioak) «Nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzailea» esaten dio bere buruari. Iguala al litzateke «Iraultza Sozialistarako euskal erakunde abertzalea» esatea?

Ilegalizazioa bezalako mehatxuei aurre egiteko garaia duten honetan, txikikeriak irudituko zaizkie hainbati auzi semantiko hauek, baina kontuz. Esan bezala, izenak ez du izana egiten; baina izenak kontzeptua gordetzen du; eta kontzeptuak dira gogoaren edukiak; gogo da ekintzen iturria eta ekintzek bai, ekintzek egiten dute izana. Ekintzek errealitatea aldatzen dute baina baita egilea egiten ere. Bat ez da berez ezer; ekintzek egiten dute halakoa edo bestelakoa; ekintzek egiten dute bat «Sozialista abertzale» ala «Abertzale Sozialista». Baina kontuz. Biak ez dira berdin.